

Amnistiari gabe bakerik ez! / Sin amnistia, no hay paz!

HERRITAR BATASUNA :: 04/09/2017

[Eusk/Cast] Luchar por la Amnistía, como hemos hecho siempre, es proclamar la legitimidad de nuestra lucha, y denunciar constantemente la violencia de los estados opresores.

[Euskara]

Amnistiari gabe bakerik ez!

HERRITAR BATASUNAk bere iritzia eman nahi du Euskal Preso Politikoen Kolektiboak, **EPPK**k, erabakitakoari buruz. Eztabaida baten ondorioz, 345 kide izanik eta aldeko 221 botorekin, **SORTU** alderdiak seinalatutako bidea hartzea erabaki berri du **EPPK**ren gehiengoak.

Gogoratu behar dugu erabaki hau bat datorrela 2016ko urtarrilaren 13an Iruñean **SORTU**ko kide Rufi Etxeberriak bere alderdiaren izenean finkatutako ildoarekin. Eta guztiz koherentea dela azken urteotan Ezker Abertzale osoaren izenean frakzio erreformista batek agertutako ideiekin. **EPPK**ren bilakaera **SORTU** alderdiak gidatutako operazio politiko luze bat izan da. Operazio honen azken emaitza Espainiako Diputatuen Kongresuan pasa den astean aho batez onartutako ebazpena dugu, non betiko Ezker Abertzalearen aurkako esaldi lotsagarri hauek agertzen baitira: ***“La sociedad española nunca dará su brazo a torcer”, “Nuestra fuerza nace de su unidad”, “Expresar nuestro reconocimiento y gratitud (...) a los profesionales de las policías locales y policía catalana, cuerpos y fuerzas de seguridad del Estado”, “La defensa de nuestros valores democráticos”, “La defensa de la convivencia, las libertades y la democracia frente a quienes quieren imponer el terror o el odio”.***

EH Bilduren izenean adierazpen hau sinatu duena, Donald Trump zorionduz enbaxadore yankiari gutun bat idatzi ziona da: **SORTU**ko kide Marian Beitialarrangoitia. *“Nola iritsi ote gara honaino?”* galdetzen diote egun hauetan militante abertzale independentista eta sozialista askok beren buruari. Ikus dezagun eraldaketa erreformista honen kronologia laburra:

2009ko azaroan, Altsasuko adierazpena, non Mitchell senatariaren printzipioak onartu baitziren. **2010eko otsailean** **Zutik Euskal Herria** agiria. **Ekainean**, Ezker Abertzale erreformista eta EAren arteko ***“Lortu arte”*** hitzarmena. **Irailean**, **Gernikako Akordioa**. **2011ko otsailean**, **SORTU**ren estatutuak, sistemak inposatutako baldintza guztiak bere jardueran eta praktikan onartuz, haratago joanez eta handik aurrera salbuespen egoera amaiturik zegoela aldarrikatuz. **Maiatzean**, **Bildu** koalizioaren sorrera. **Ekainean**, Arnaldo Otegiaren eta beste auzipetuen ***“Bateragune auzia”***,

Madriilen, etsaien aurrean adierazpen lotsagarriak eginez. **Irailean, Amaiur** koalizioa aurkeztu zen eta **EPPK**k onespena eman zion **Gernikako Akordioari**. **Urrian, Zutik Euskal Herria zehazten** adierazpena. **Hil horren 18an** Ezker Abertzale erreformistak **Aieteko** Nazioarteko Konferentziako ebazpenari "*babes osoa eta irmoa*" eman zion eta 20an, **ETA**k borroka armatua behin betiko utzi zuen.

Prozesu honetan egindako urratsak babesteko, haxe agindu zien **SORTU**ren zuzendaritzak Ezker Abertzaleko hainbat militante eta eragileri: borroka armatuaren amaierak masa konfrontazio, desobedientzia sozial eta intsumisio instituzionalaren ziklo sendoa ekarriko zuela. Berehala kontrakoari ekin zioten, ordea. Estatuekin herri konfrontazioa egiteko gaitasuna zuen edozein eragile eta herri mugimendu desagerrarazi zituzten. Honen adibiderik argiena "**Adierazi Euskal Herria**" koordinakundea likidatu eta haien kontrolpeko antolakundeez ordezkatu zutenean gertatu zen. Edota **Askatasuna** erakundea desagertu zenean, 2012ko ekainean.

Hortik aurrera, **EPPK**ren zuzendaritza urratsez urrats joan da bere jarduera egokitzen **SORTU**ren strategiara: 2012ko ekainaren 2an, "**irtenbidea konponbide integralarekin loturik doa, Amnistia - Autodeterminazioa**" esaten bazen ere, haxe ere bai: "**Alde anitzetako minaz jabetzen gara erantzukizun osoz**". Lehen urratsa zen igelaren teknikan. Gauza jakina baita igel bat ur irakinera jaurtitzen bada, jauzi egiten duela berehala indar handiz, bere burua salbatuz. Ostera, ur epelean murgilduz gero, eta tenperatura kontu handiz eta progresiboki igotzen bada, igela hantxe egosiko da bizirik eta bertan hilen, erresistentzia egin barik, ohartu gabe...

2013ko abenduaren 28ko honako hau esan zuen **EPPK**ren zuzendaritzak: "**Gatazkaren ondorioz eragindako alde anitzeko sufrimendua eta mina zinez aitortzen dugu.(...) Ontzat eman dezakegu gure etxeratze-prozesua -Euskal Herriratzea lehentasunez eta kaleratzea ezinbestez-, lege-baliabideak erabiliz gauzatzea, guretzat inplizituki zigorraren onarpena dakarren arren. (...) Gure jarduera politikoaren ondorioz gatazka politikoan izandako ondorioekiko erantzukizun osoa onartzen dugu.**" 2016ko azaroan, berriz, hau zioen: "**ETAk hartutako erabaki estrategikoarekiko funtsezko desadostasuna oinarritzat hartuta, ziklo politikoaren irakurketa guztiz bestelakoa egiten duen sektore zehatz batek presook ikurtzat hartuta egin die aurre Ezker abertzalearen erabaki nagusiei. (...) Talde horiek EPPKren egiturak aintzat hartu gabe Kolektiboaren baitan eragin dute urteotan eta kidegoaren artean ematen diren kezkak erabili Ezker abertzalearen ildoari eraso egin eta hartutako erabakiak zalantzan jartzeko.**"

Lehen aldiz, **EPPK**ren agiri batek ordura arteko neutraltasun itxura neurtua utzi zuen, Ezker Abertzale iraultzailea erasotuz. "**2011ko urriaren 20tik aurrera EPPKren erresistentzia-funtzioa amaituta**", aurreko ildoak utzi egin behar zen "*garai berrietara*" egokitzeko: "**Preso bakoitzaren egoera juridikoaren**

arabera ildo juridikoan aukera desberdinak egongo dira. Proposamena kolektiboki ontzat ematen bada, norbera izango da ildo juridikoak eskaintzen dituen aukera horiei heldzea edo ez erabakiko duena, preso bakoitzak erabakiko du egin daitezkeen eskaera edo bide legal ezberdinei (erredentzioak, kartzela destinoak, graduen aldaketa, baimenak, Euskal Herrira hurbiltzea, baldintzapeko askatasuna, etab) heldzea edo ez heldzea, eta horretan, ildo kolektiboki onartu denez, taldearen babesa eta laguntza izango du une oro kide horrek.”

“Sauve qui peut!/isálvese quien pueda!” orokor bat, hori bai, “kolektiboki” onartua. **EPPK**ren autosuntsitzea. Aurtengo uztaileko agirian agertzen da sakoneko kontraesana: **“Legearen bidea ibiliko dugu gure askatasuna eskuratzeko, gatazkaren gainditzeak hala eskatzen duelako. Jakitun gara, noski, gaur egun indarrean dagoen legediak kontrako bidetik garamatzala, ez dagoela irtenbiderik.”** Hori aitortuta ere, bide oker, antzu eta autosuntsitzailearen aldeko hautua egin dute 221 preso politikoek!

HERRITAR BATASUNAren ustez, **EPPK**ren gehiengoak erabakitako ildoak okerra da, **SORTU**ren estrategia erreformista eta posibilistaren baitan kokatzen delako. Gaur egun aski elementu ditugu estrategia horrek noraino eraman gaituen, nora garamatzan eta norantz eramanen gaituen jakiteko. Estatu zapaltzaileen legea presoak askatzeko erabiltzea ezinezkoa da, arau guztiak giltzapeko militanteen derrota politikoa lortzera bideratuta daudelako: damutzea eta kolaborazioa erdiesteko. Lege hauek bilatzen dutena da Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren batasuna eta elkartasuna suntsitzea, inolako babes sozial eta politikorik gabe utziz 40 urteko kondenak bete behar dituzten militanteak eta beren familiak, **“damutu ala hil!”** dilema aurrean ezarritik. Eta damututa ere, ez dira kalera aterako ...

EPPKren gehiengoak hartu duen erabakiak ez du arazoa konponduko, baizik eta egoera sakonki okerragotuko, estatu okupatzaileen eskakizunak onartuko direlako. Euskal preso politikoek egin duten borrokaren legitimitatea hondoratuko da, jadanik gertatzen den bezala, **“giza eskubideen diskurtsoak”** hori dakarrelako. Altsasu eta Oreretako preso politiko berriei beren izaera politikoa bera ere ukatu egiten zaie erro-errotik, beren borroka zeharo despolitizatuz eta desitxuratuz, horrela Estatuaren errepresioaren atzaparretatik **“errazago”** irtengo direlakoan. Areago, abuztuaren 26ko agirian **EPPK**ren zuzendaritza prest agertzen zen **“eragileekin bide orri bat adosteko, presoak kaleratzeko”**. Abuztuaren 30ean PPren gobernuak sustengatzen duen PNVk erantzun dio, Jaurilaritzak espetxeen kudeaketa negoziatuko duela esanez, eta ez espetxe politika.

Hona hemen ETako preso politiko ohi baten gogoetak: **“Praktikan eta erabakiaren mamiari erreparatuz gero, ez dira Amnistiaren parametroak kontuan hartzen, bai zentzu taktikoan (errepresialiatu guztiak etxera itzultzea) bai zentzu estrategikoan (Euskal Herriaren eskubide nazionalak eta sozialak aitortzea). Ondorioz, errepresioaren noriak biraka**

segituko du gelditu gabe. Horrez gain, ez da soilik kartzelei dagokien kontu bat, izan ere, badela denbora, SORTU indarrezko legalitatean kokaturik dagoela, eta ETAk jarduna bertan behera utzi duela eta beraren armagabetzea gertatu egin dela. Estatuei aurre egiteko zirkulu politikoa itxi egin da. Hemendik aurrera Ezker Abertzale Ofizialak, eta bere mendea dagoen orok, espainiar eta frantses legalitatearen parametroen pean jardungo

du soil-soilik. Gure etsaien legeriari men egin eta heltzeko erabakiak iraganaren eta geroaren arteko mugarria ekartzeaz gain, etorkizuna baldintzatzen du nola edo hala, alegia, Euskal Herria sozialistaren alde borrokatzeagatik espetxeratuak izango diren euskal militante berrien etorkizunaz ari gara.”

Amnistiaren alde borrokatzea, betidanik egin izan dugun bezala, gure borrokaren legitimitatea aldarrikatzea da, eta estatu zapaltzaileen bortizkeria etengabe salatzea. Amnistiaren alde borrokatzea, Independentzia, Sozialismoa, Birbatasuna eta Berreuskalduntzearen alde urte hauetan egindakoa defenditzea da, etsaien gezur, manipulazio eta intoxikazioen aurka. Amnistiaren alde borrokatzea da Euskal Iraultzaren esperantza bizirik atxikitzea, posibilismo eta oportunismo guztien kontra.

Irtenbidea, Amnistiaren aldeko borrokaren inguruan indarrak batzea da, eta haratago joanez, Ezker Abertzale iraultzailea sendotzea arlo guztietan, Nafarroako Euskal Errepublika Sozialista eta Feministaren bidean. Amnistiaren aldeko mobilizazio guztiak babesten eta txalotzen ditugu, eta bereziki datorren igandean, irailaren 10ean, eguerdiko ordu batean Donostiako bulebarretik abiatuko dena, Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren aurkako Mugimenduak antolatua. Borroka da bide bakarra!

Euskal Herrian, 2017ko irailaren 4an.

HERRITAR BATASUNA

[Castellano]

Amnistiarik gabe bakerik ez! (Sin amnistia, no hay paz!)

HERRITAR BATASUNA quiere dar su opinión sobre la última decisión del Colectivo de Presos Políticos Vascos, **EPPK**. Como consecuencia de un debate, siendo entonces 345 presas y presos y con 221 votos a favor, la mayoría del colectivo ha decidido recientemente tomar la vía señalada por el partido político **SORTU**.

Tenemos que recordar que esta decisión está de acuerdo con la línea marcada por el miembro de **SORTU** Rufi Etxeberria en nombre de su partido en una conferencia en Pamplona el 13 de enero de 2016. Y que es así mismo totalmente coherente con las ideas que en estos últimos años una fracción reformista ha manifestado en nombre de toda la Izquierda Abertzale. La evolución del **EPPK** ha sido una larga operación política dirigida por el partido político **SORTU**. El último resultado de esta operación ha sido la resolución tomada por unanimidad en el Congreso de los Diputados de España, donde aparecen estas frases vergonzosas contra la línea política de la Izquierda Abertzale de siempre: ***“La sociedad española nunca dará su brazo a torcer”, “Nuestra fuerza nace de su unidad”, “Expresar nuestro reconocimiento y gratitud (...) a los profesionales de las policías locales y policía catalana, cuerpos y fuerzas de seguridad del Estado”, “La defensa de nuestros valores democráticos”, “La defensa de la convivencia, las libertades y la democracia frente a quienes quieren imponer el terror o el odio”.***

Quien ha firmado esto en nombre de **EHBildu** ha sido la misma persona que escribió una carta al embajador yanqui felicitando a Donald Trump por su victoria electoral: la militante de **SORTU** Marian Beitialarrangoitia. *“¿Cómo hemos podido llegar hasta aquí?”* se preguntan en estos días muchas militantes independentistas y socialistas sinceras. Veamos una breve cronología de esta transformación reformista:

En noviembre de 2009, la declaración de Altsasu, donde se aceptaron los principios del senador yanqui Mitchell. En febrero de **2010 el manifiesto *Zutik Euskal Herria***. En junio, **el pacto “Lortu arte”**, entre la Izquierda Abertzale reformista y Eusko Alkartasuna. En septiembre, el acuerdo de **Gernika**. En febrero de **2011**, los estatutos del partido político **SORTU**, aceptando en su actividad y práctica cotidiana todas las condiciones impuestas por el sistema, yendo más allá aún, y proclamando que a partir de entonces se había acabado el estado de excepción. En mayo, el surgimiento de la coalición **electoral Bildu**. En junio, el juicio de **“Bateragune”** contra Arnaldo Otegi y el resto de encausados, haciendo unas declaraciones vergonzosas ante el enemigo. **En septiembre, se presentó la coalición Amaiur** y el **EPPK** le dio su conformidad al acuerdo de **Gernika**. **En octubre, declaración *Zutik Euskal Herria zehazten***. **El 18 de ese mismo mes, la Izquierda Abertzale reformista le dio su “total y firme apoyo” a la resolución de la Conferencia Internacional de Aiete, y el 20, ETA abandonó la lucha armada definitivamente.**

Para apoyar los pasos dados en este proceso, la dirección de **SORTU** prometió a militantes y organizaciones de la Izquierda Abertzale que el final de la lucha armada traería consigo un potente ciclo de confrontación de masas, desobediencia social e insumisión institucional. Sin embargo, en seguida empezaron a hacer justo lo contrario. Hicieron desaparecer cualquier actor político y movimiento popular que tuviese capacidad para enfrentarse a los estados. El

más claro ejemplo de esto sucedió cuando liquidaron la coordinadora **“Adierazi Euskal Herria”** y la sustituyeron por organizaciones bajo su control. O cuando se autodisolvió la organización antirrepresiva **Askatasuna**, en junio de 2012.

A partir de entonces, la dirección del **EPPK** ha ido, paso a paso, adaptando su actividad a la estrategia de **SORTU**: si bien el 2 de junio de 2012 se hablaba de que, **“la salida está ligada a una solución integral, Amnistía - Autodeterminación”**, también de decía en el mismo comunicado esto: **“Reconocemos el múltiple sufrimiento con toda responsabilidad.”** Era el primer paso en la técnica de la rana. Porque es cosa sabida que si se lanza una rana al agua hirviendo, ésta salta enseguida con gran fuerza, salvándose de morir escaldada. En cambio, si se sumerge en agua templada, y si se aumenta la temperatura del agua progresivamente y con mucho cuidado, la rana se cocerá viva y morirá ahí, sin oponer resistencia, sin darse cuenta de lo que le está pasando...

El 28 de diciembre de 2013 la dirección del **EPPK** dijo lo siguiente: **“Confesamos sinceramente el daño y sufrimiento multilateral causado como consecuencia del conflicto (...) Podemos aceptar que nuestro proceso de vuelta a casa -con prioridad nuestra repatriación a Euskal Herria y nuestra indispensable salida a la calle- sea realizado utilizando los mecanismos legales, aunque esto lleve implícito para nosotros la aceptación de la condena. (...) Aceptamos la total responsabilidad sobre las consecuencias de nuestra actividad política en el conflicto político.**

En noviembre de 2016, por otra parte, decían esto: **“Tomando como base el desacuerdo fundamental con la decisión estratégica tomada por ETA, un sector concreto que hace una lectura totalmente diferente del ciclo político, tomándonos como bandera a nosotros los presos, le ha hecho frente a las decisiones principales de la Izquierda Abertzale. (...) Esos grupos han intervenido en el seno del Colectivo sin respetar las estructuras del EPPK y han utilizado las preocupaciones que se dan en el seno de la militancia para atacar la línea de la Izquierda Abertzale y para poner en duda las decisiones tomadas.”** Por primera vez, un comunicado del **EPPK** abandonó la imagen de neutralidad comedida adoptada hasta entonces, atacando las posiciones políticas de la Izquierda Abertzale revolucionaria.

“Una vez acabada la función de resistencia del EPPK a partir del 20 de octubre de 2011”, había que abandonar la línea anterior para adaptarse a los “nuevos tiempos”. **“Según la situación jurídica de cada preso, habrá diferentes opciones. Si la propuesta se acepta colectivamente, cada uno será el que decida si se acoge o no a las oportunidades que le ofrece la vía jurídica, cada preso decidirá si recurre o no a las peticiones y vías legales que se puedan hacer (redenciones, destinos penitenciarios, cambio de grados, permisos, acercamiento a Euskal Herria, libertad condicional, etc.) y en esto, como la línea se ha aceptado colectivamente, tendrá el apoyo y la ayuda del colectivo en todo momento.”**

O sea, un **“isálvese quien pueda!”** general, eso sí, decidido **“colectivamente”**. La autodestrucción del **EPPK**. En el comunicado de julio de este año aparece la contradicción profunda de esta decisión: **“Utilizaremos la vía legal para conseguir nuestra libertad, porque la resolución del conflicto así lo exige. Somos conscientes, por supuesto, de**

que la legislación actualmente en vigor nos lleva en sentido contrario, que no hay salida.” ¡A pesar de reconocer esto, 221 presos políticos han decidido tomar esta vía equivocada, estéril y autodestructiva!

En la opinión de **HERRITAR BATASUNA**, la vía decidida por la mayoría del **EPPK** es equivocada, porque se sitúa en el seno de la estrategia reformista y posibilista de **SORTU**. Hoy en día tenemos suficientes elementos para saber adónde nos ha llevado esa estrategia, adónde nos lleva y adónde nos llevará. Utilizar las leyes de los estados opresores para liberar a las presas es imposible, porque todas las reglas están orientadas a conseguir la derrota de las militantes que están encarceladas: el arrepentimiento y la colaboración. Lo que estas leyes buscan es destruir la unidad y solidaridad del Colectivo de Presos Políticos Vascos, dejando sin ningún tipo de apoyo social y político a militantes que deben cumplir condenas de 40 años y a sus familias, poniéndoles ante la disyuntiva de ***“¡arrepientete o muere!”***. Y aunque se arrepientan, no saldrán a la calle...

La decisión que ha tomado el **EPPK** no solucionará el problema, sino que empeorará aún más profundamente la situación, porque se aceptarán las exigencias de los estados ocupantes. La legitimidad de la lucha que han realizado las presas políticas vascas se hundirá, como ya está sucediendo, porque el *“discurso de los derechos humanos”* trae eso como consecuencia. A los nuevos presos políticos de Altsasu y Oreretako se les niega hasta su carácter político de forma radical, despolitizando y deformando su lucha, pensando que de esa forma saldrán *“más fácilmente”* de las garras de la represión del Estado. Es más, en el comunicado del 26 de agosto, la dirección del **EPPK** se mostraba dispuesta a ***“acordar con los actores políticos y sociales una hoja de ruta, para sacar a la calle a los presos”*** El 30 de agosto el PNV, que apoya con sus votos el gobierno del PP, le ha respondido, diciendo que el Gobierno Vasco negociará la gestión de las cárceles, y no la política penitenciaria.

Traemos aquí la reflexión de un ex preso político de ETA: ***“En la práctica y si nos fijamos en el fondo de la decisión, no se toman en cuenta los parámetros de la Amnistía, ni en su sentido táctico (vuelta a casa de todos los represaliados políticos) ni en su sentido estratégico (reconocimiento de los derechos nacionales y sociales de Euskal Herria). Como consecuencia de esto, la noria de la represión seguirá girando sin cesar. Además, esto no es sólo un asunto que afecte a las cárceles, ya que hace tiempo que SORTU se ha situado en la legalidad impuesta por la violencia, y que ETA ha dejado su actividad y ha realizado su desarme. El círculo político para hacer frente a los estados se ha cerrado. A partir de ahora la Izquierda Abertzale Oficial, y todo lo que esté bajo su control, actuará exclusivamente dentro de los parámetros de la legalidad española y francesa. Además de marcar una frontera entre un antes y un después, la decisión de aceptar y recurrir a la legislación de nuestros enemigos condiciona de una forma u otra el futuro, es decir, estamos hablando de los nuevos militantes que serán encarcelados por luchar por una Euskal Herria socialista.”***

Luchar por la Amnistía, como hemos hecho siempre, es proclamar la legitimidad de nuestra lucha, y denunciar constantemente la violencia de los estados opresores. Luchar por la Amnistía es defender lo hecho en todos estos años a favor de la Independencia, el

Socialismo, la Reunificación y la Reeuskaldunización, contra todas las mentiras, manipulaciones e intoxicaciones de nuestros enemigos. Luchar por la Amnistía es mantener viva la esperanza de la Revolución Vasca, contra todos los posibilismos y oportunismos.

La solución es unir fuerzas en torno a la lucha por la Amnistía, y más allá, fortalecer la Izquierda Abertzale revolucionaria en todos los ámbitos, en el camino de la República Socialista y Feminista Vasca de Nabarra. Apoyamos y aplaudimos todas las movilizaciones a favor de la Amnistía, y especialmente la que partirá de bulevar de San Sebastián el próximo domingo, 10 de septiembre, a la una del mediodía, organizada por el Movimiento pro Amnistía y contra la represión.

¡La lucha es el único camino!

Euskal Herria, a 4 de septiembre de 2017

HERRITAR BATASUNA

<https://eh.lahaine.org/amnistiarik-gabe-bakerik-ez-sin>